

FUNTSEZKO JARDUERAK

- *Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?*

Lehenik, gure proiektuak funtziona dezan, **web orri bat** sortu dugu: gaur egun oso inportantea baita enpresa bakoitzak Internetean presentzia izatea. Horrez gain, web orria ezagutzera eramateko gure kontu pertsonaletan web orriaren url-a itsatsiko dugu, jendea erraztasunez sartzeko.

Web orriarena alde batera utziz, bigarrenik, gure proiektuak funtziona dezan, gure taldekide guztiek **zer egin behar dugun garbi izatea** ere, da egin beharreko beste gauza bat.

Denok argi badugu egitekoa, bakoitzaren laguntzarekin errazagoa izango da proiektua aurrera eramatea.

Hirugarrenik, beste egin beharreko bat, erabilitako **kirol-makinak kalitatezkoak** direla eta **langileak lanerako balio dutela** ziurtatzea da, izan ere, kalitatezkoak badira gehiago iraungo dute, dirua aurreztuz. Kontrakoa, kalitatezkoak ez erostean, dirua erraz galduko dugu.